



Euskalkien ageriko aurpegia 2024an

Mugaz gaindiko Uda Ikastaroak
Cursos de Verano transfronterizos
Cours d'Été transfrontaliers



17.Juil 2024

Cod. L06-24

Modalité:

En personne

Édition

2024

Type d'activité

Cours d'été

Date

17.Juil 2024

Location

Cité des Arts. Bayonne

Langues

Basque

Reconnaissance officielle par l'État

10 heures

Comité d'organisation

Fundación
BBVA



Description

Berrogei urte igaro dira Koldo Mitxelenak "Euskalkien ageriko aurpegia" izeneko artikulua argitaratu zuenetik (1983). Lan horretan, Mitxelenak dei egiten die euskalari, ikertzaile eta euskaltzaleei berandu baino lehen elkarrekin lan egin dezaten, euskalkien bilketan eta azterketan zein euskalaritzan aitzinatzeko; eta, horrekin batera, zeregin horretarako funtsezkoa den, baina oraindik gutxi landu edo sakondu den ikergai baten (fonetika) inguruan zenbait hitz esaten ditu, alderdi hori lantzeko jarraibideak edo kontuan izan beharrekoak zerrendatuz.

Nahiz eta azken urteotan nahi baino gutxiago lan egin den euskalkien azterketan, euskal dialektologia ez da geldirik egon, eta zenbait aurrerapen eta ikerketa egin dira lexikoaren, morfologiaren edota sintaxiaren arloetan. Euskalkien azterketa eta ondoko sailkapen bat egin nahi bada, lehenengo pausoa, euskalki horietako hiztunengana hurbildu eta haiek ezagutzeaz batera, beraien hizketari buruz ahalik eta informazio zehatzena jasotzea da. Horretarako, ikerleak edo biltzaileak, besteak beste, ezagutza izan behar du eta informazio hori biltzeko nola lan egin behar duen jakin behar du. Ordea, Mitxelenak nabarmentzen zuen ez geneukala lan mota horretarako jende prestaturik, bereziki fonetika gaietan, eta jendea prestatzeko beharra nabarmendu zuen. Elkarlanean eta berandu izan baino lehen lanari ekiteko aldarria da 1983ko artikulua.

Zorionez, Euskal Ikasketen barruko Master eta Doktorego programak ari dira fruituak ematen, eta Uda Ikastaro honetan Masterreko ikasle batzuk eta Doktorego Programako doktoregai batzuk elkartuko ditugu, beraien lanaren berri eman ahal izan dezaten. Ikastaroa oso baliagarria izango da saretzeko ere, ikasle-irakasleen artean sor daitezkeen eztabaida dinamika interesgarri eta beharrezkoen bitartez.

Objectifs

Euskal dialektologiaren inguruan lanean ari diren ikasle gazteak elkartzea eta eztabaida emankorrak sortzea.

Ikasle-irakasleen arteko saretzea bultzatzea.

Gaur egun bizirik dauden euskalkien osasunaren berri ekartzea, alor lana egiten dabilzan ikertzaile gazteen bilketan bitartez.

Euskalkien egoeraz argazki orokor bat ekartzea.

En collaboration avec



Programme

17 07 2024

09:00 - 09:15	Erregistroa
09:15 - 09:25	Présentation par la Direction de l'activité Irantzu Epelde Cendoya IKER UMR5478 - Ikertzailea
09:30 - 10:00	"Hika dokumentatzen: corpus berri bat" Alexander Artzelus UPV/EHU - Doktoregaia
10:00 - 10:30	"Noka Ortzaizen" Ana Jaunarena UBM - Masterreko ikaslea
10:30 - 11:00	Pause
11:00 - 11:30	"Ikaztegieta eta Baigorriko ahoskerak aztertzen" irati Urreta IKER UMR5478 - Doktorego ondoko ikertzailea
11:30 - 12:00	"Gazteentzako irratsaio eta telebista saioak euskaraz" Maddi Kintana Morcillo UBM. - Masterreko ikaslea
12:00 - 12:30	"Hizkuntza aldakortasuna Bermeoko euskaran" Nahia Mendizabal UPV/EHU - Masterreko ikaslea
12:30 - 12:50	"Katalanaren dialektoak ikergai: begirada bat hizkuntzaren historiatik" Anna Pineda Universitat de Barcelona - Ikertzailea.
14:15 - 15:30	Table ronde: "Mahai-ingurua" Irantzu Epelde Cendoya IKER UMR5478 - Ikertzailea Maddi Kintana Morcillo UBM. - Masterreko ikaslea Nahia Mendizabal UPV/EHU - Masterreko ikaslea Anna Pineda Universitat de Barcelona - Ikertzailea. Alexander Artzelus UPV/EHU - Doktoregaia Ana Jaunarena UBM - Masterreko ikaslea irati Urreta IKER UMR5478 - Doktorego ondoko ikertzailea

Directed by



Irantzu Epelde Cendoya

IKER CNRS (UMR 5478)

Profesores



Alexander Artzelus



Ana Jaunarena



Maddi Kintana Morcillo



Nahia Mendizabal



Anna Pineda



irati Urreta

Tarifs inscription

FACE Á FACE

JUSQU'AU 17-07-2024

[Cours d'Été transfrontaliers](#)

0 EUR

Lieu

Cité des Arts. Bayonne

3 Av. Jean Darrigrand, 64100 Bayonne, Francia.

Aquitaine